



Hirian ekitaldiak Bilbao BBK Live jaialdiaren jai-giroko espiritua ekarriko du Deustura

- **Besteak beste, Surfin' Bichos, Zea Mays, Cruz Cafuné, La Zowi eta Putochinomarcón taldeen zuzeneko emanaldiak izango dira**
- **Ekainaren 15ean, larunbatarekin, izango da eta sarrera doan**

Mendia hirira hurbilduko zaigu, berriro ere, **Hirian** ekitaldiarekin; **ekainaren 15ean, larunbatarekin**, izango da eta Bilboko **Deustu** auzoraino eramango du Kobetamendiko espiritua, uztailearen 11n, 12an eta 13an Kobetamendin izango den Bilbao BBK Live jaialdian izaten den jai-giroko espiritu hori. Hirian festa bat da: asfaltoan, hiriko kale eta plazetan egiten den festa, izaera handia duen eta etengabe aldatzen ari den hiri sortzaile, abangoardista eta sozial batean herritarren eguneroko elkarbizitzaren agertokietan; Hirian omenaldi bat ere bada: hiria egunez egun eraikitzen duten pertsona guztiei egindako omenaldia; kulturaren eta aniztasunaren ospakizuna ere bada eta, azkenik, topagunea da: adin eta sentsibilitate guztietako pertsona orori zabalik dagoen doako kultura-esperientzia honekin bat egin nahi duten guztien eta bilbotarren arteko topagunea.

Hirian ekitaldiaren hasierako helburua Bilboko kulturaren, gizartearen eta ekonomiaren garapenari laguntzea zen, betiere ekitaldi jasangarriaren ereduari eta jarduera ekonomiko sustatzen duen ereduari jarraikiz, auzoaren mesederako. Horregatik, bi urtez Bilbo Zaharra auzoan egin ostean, aurtun Deustun abiatuko du Bilboko auzoz auzoko ibilaldia, jaialdi urbano ibiltaria izango baita.

Hirian ekitaldian parte hartuko duten artistak musika garaikidean aurki daitezkeen erritmo urbanoen aniztasunaren adierazgarri dira. Alde batetik, unean uneko garaietara egokitzen jakin duen **Surfin' Bichos** taldea; Nirvanaren garai bete-betean, Estatuko musikaren industria hankaz gora jarri zuten rockaren beren ikuspegi subertsibo, aztoragarri eta adiktiboarekin, eta beren hit guztiak biziberritzeko asmoz itzuli dira berriro, sasoi betean; edo Bilbon laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran sortu zen **Zea Mays** taldea. Hogei urtetik gorako ibilbide honetan, aldaketa teknologikoetara egokitzen jakin izan du taldeak; izan ere, aldaketa teknologiko horiek gure arteko harremanak egiteko modua eta gure kontsumo-ohiturak aldatzeaz gain, iragankortasunaren diktadura ezartzera ere iritsi dira.

Bestetik, proposamen artistiko berriagoak, hiri handien erraietatik sortutakoak; esate baterako, **Cruz Cafuné**: musika urbanoaren barruan estilo ez oso ohikoa defendatzen du, Kanariar Uharteetako auzo txiroetan entzuten zen musikaren revival batekin, hip-hoparen klasikoak erreferentziatuz hartuta eta ahots notaren bat edo beste ere tartekatuta; **La Zowi**: gauzak kontatzeko bere modu gordin eta harroa dela eta, "traparen matriarka nagusitzat" jotzen da, eta auzoko 'raxet' arima apologia kapitalista sakonarekin uztartzen du egiten duen orotan; edo



Putochinomarción: musikari, performance artista eta produktore honek bere abestiak bere burua ahalduntzeko erabiltzen ditu, bere jatorriagatik eta bere sexu-joerarengatik zapaldu, baztertu edo txiki sentiarazi duten guztien aurka ahalduntzeko, eta horretaz guztiaz gain, Chenta Tsai –benetako izena– maisua da pop himnoak sortzeko garaian, protesta abesti ukitu eta guzti, nahiz eta bi kontzeptu horiek itxuraz antagonikoak izan.

Hirian ekitaldiko artisten zerrenda bukatzeko eta osatzeko, honako hauek aipatuko ditugu: **Chico Blanco** produktore, kantari eta DJ gaztea; punk estiloa cumbia errebindikatzailer eta feministarekin nahasten duen **Kumbia Queers** taldea, musika urbanoaren ikuspegi queer bat eskaintzen duen **La Dani**, letra ironiko eta feministak garage-punk doinuekin uztartzen dituzten **Las Odio** taldea, **Mambo Jambo** basatiak, **Mitto Koronkon** MC bilbotarra, **Tremenda Jauría** taldearen cumbiaton lotsagabea eta **Sara Zozaya** kantautore donostiarra; horietaz gain, musika elektronikoaz gozatzeko aukera ere izango dugu, Bilbao BBK Live jaialdiko agertoki berritzaileenean: Basoa. Hirian ekitaldiaren barruan, **Basoa in the city** izango dugu, baso urbanoa, eta bertan parte hartuko dute honako hauek: **Bihotza**, **Dave P**, **Juanito Jones** eta **Marc Piñol**; alegia, generoak eman duen onenaren lagin bat.

Bilboko Udalarekin eta Heineken® etxearekin batera –historikoki Bilboko musikaren garapenarekin konprometituta egon izan baita–, Bilbao BBK Live jaialdiak zuzeneko musika-emanaldi bat prestatu du Deustu auzo enblematikoko kaleetan barrena jai-giroan gozatzeko.

[Press kit](#)

HIRIAN
2019ko ekainak 15
Deustu, Bilbo

CRUZ CAFUNÉ
CHICO BLANCO
KUMBIA QUEERS
LA DANI
LA ZOWI
LAS ODIO
LOS MAMBO JAMBO
MITTO KORONKON
PUTOCHINOMARICÓN
SURFIN´ BICHOS
TREMENDA JAURÍA
ZEA MAYS
SARA ZOZAYA

Basoa in the city

BIHOTZA
DAVE P
JUANITO JONES
MARC PIÑOL

Sarrera libre



Informazio gehiago:
bilbaobbklive.com